

**AUTOAREN GIDABAIMEN
AZTERKETA TEORIKOA
EUSKARAZ GAINDITZEAGATIK,
2018KO DIRU-LAGUNTZAREN
DEIALDIA ETA OINARRIAK
ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

2018ko Diru-laguntzen Udal Plan Estrategikoak, 2017/12/12ko osoko bilkuran onartua, beste batzuen artean honako diru-laguntza deitzea aurreikusi du:

“C) Autoaren gidabaimena lortzeko azterketa euskaraz egin eta gainditzeagatik.

a) Helburuak: azterketa teorikoa euskaraz gainditzeko duten gazteen klase praktikoak ordaintzen laguntzea.

b) Lortu gura diren helburuak: euskara alor guztietara zabaltzea, kasu honetan autoeskolara, eta herritarrari euskararen balioa erakutsi, motibatzea eta gonbidatzea euskara erabiltzeko.

c) Aurreikusitako zenbatekoa: 2.000,00 € urtero.

d) Finantzaketa: udal aurrekontua.

e) Diru-atala: 3350.481.11.”

38/2003 Legeak, Diru-Laguntzen Orokorra, hau garatzen duen Erregelamenduak eta Diru-Laguntzen Udal Ordenantza Orokorrak xedatzen dutenarekin bat eta xedatzen dutena betetzeko.

APROBACIÓN SI PROCEDE DE LA CONVOCATORIA Y LAS BASES DE SUBVENCIONES 2018 POR APROBAR EL EXAMEN TEÓRICO DE PERMISO DE CONDUCCIÓN DE AUTOMÓVILES EN EUSKERA

El Plan Estratégico municipal de Subvenciones para 2018, aprobado en sesión plenaria celebrada el 12/12/2017, ha previsto, entre otras, la siguiente convocatoria de subvención:

“C) Realización y aprobación del examen teórico de conducción de automóviles en euskera.

a) Objeto: subvencionar algunas clases prácticas a jóvenes por aprobar el teórico en euskera.

b) Objetivos a conseguir: ampliar la oferta del euskera a otros ámbitos, en este caso la autoescuela, hacer visible el valor del euskera y motivar e invitar a la juventud a que lo use.

c) Importe previsto: 2.000,00 € anuales.

d) Financiación: presupuesto municipal.

e) Aplicación presupuestaria: 3350.481.11.”

De conformidad y en cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 38/2003, General de Subvenciones, su Reglamento de desarrollo y Ordenanza municipal General de Subvenciones.

Udal Kontu-hartzaileak diru-izendapena dagoela esanez egindako informea ikusi ondoren, Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak, aho batez, Tokiko Gobernu Batzarrari honako erabaki hau hartzea proposatu dio:

LEHENENGO.- Honako diru-laguntza deialdi hau egitea: *“Autoaren gidabaimen azterketa teorikoa euskaraz gainditzeagatik, 2018ko diru-laguntza”, eranskinean atxikitako oinarrien arabera.*

BIGARREN.- Dagokion gastua onartzea, hau da, bi mila euro (2.000,00 €).

HIRUGARREN.- Onartutako oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Bestalde, baita deialdia argitaratzea Diru-Laguntzen Datu-Base Nazionalean (BDNS) eta laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

LAUGARREN.- Erabaki hau, Euskara eta Hezkuntza sailera zein udal-fondoen kontu-hartzailetzara bidaltzea, honen barri izan dezaten.

Visto el informe sobre existencia de consignación presupuestaria emitido por el interventor de fondos municipal, la Comisión de Euskera y Educación, por unanimidad, propone a la Junta de Gobierno Local la adopción del siguiente acuerdo:

PRIMERO.- Proceder a la convocatoria de las subvenciones municipales: ***“Subvención 2018 por aprobar el examen teórico de permiso de conducción de automóvil en euskera”*** conforme a las bases que se acompañan como anexo.

SEGUNDO.- Autorizar el gasto correspondiente, por importe de dos mil euros (2.000,00 €).

TERCERO.- Publicar las bases aprobadas en el B.O.B. Asimismo, proceder a la publicación de la convocatoria en la BDNS y extracto de la misma en el B.O.B.

CUARTO.- Dar traslado del presente acuerdo al departamento de Euskera y Educación, así como a la Intervención de fondos municipal para su conocimiento y efectos.

Elorrio, 2018ko martxoaren 19a

**Jesus Arrieta Barinagarrementeria
BATZORDEBURUA**